

VIII.
GAITA EGUNAK
Miarritzen
2007ko azaroaren 09,10,11an

Egitaraua

[Azaroaren 9an ortziralarekin](#)

Astiriko 6etan **Kapera Imperialean** (*sartzea urrik*)

Lehen zatia : **Landetako Boha taldea**

Landetatik jin bohajoleak Landetako Konserbatorioan boha eta flauta erakaslea den Yan Cozian-ek zuzendurik

Bigarren zatia: **Euskal Herriko oboe taldea**, Iruñea eta Baionatik jini, Baionako Konserbatorioan oboezko erakalea den Jacky Morel-ek zuzendurik

Gauetzko 9etan **Santa Eugeniko elizan** (*sartzea urrik*)

« **Betiko Gaita** » Akizeko **La Nèhe** armoniako 80 soinulariak eta 10 **Uztaritzeko Gaiteroekin** Jean Garin-ek zuzendurik.

Bi taldeen arteko harremanak, gaitazale eta La Nèhe zuzendaria den Uztaritzeko Jean GARIN-en bitartez lotuak izan ziren.

Ipar Euskal Herriko musikagile gazteak diren Mañolo ESPELLET eta Remy GACHIS zati berriak asmatu dituzte La Nèhe eta Uztaritzeko Gaiteroak taldeentzako. Entzungarri huntan aurkeztua den musika, partaide guzi horien lanaren fruitua da, saio, apainketa eta emanaldi ainitzen emaitza. KD ateraldia Agorila argitaletxeak.

[Azaroaren 10ean larunbatarekin](#)

Goizeko 9ak t'erdietan **San Charles, Santa Eugenie, Merkatuan**

Dianak Iparraldeko Gaiteroek emanik

Ttoro lehiaketan Merkatuan

Txaranga Untsalaz: Iruñeko Untsalaz Txarangak ohizko txarangen musika tresna berak dauzka, nortasuna ematen dion salbuespen nabargarri batekin: bi gaitek ordezen dituzte betiko tronpetak. Euskal Herriko eta kanpoko musikak nahasten ditu. Kemena badu

jadanik haatik duela gutti ikas-bidaia bururatzera Karaibetaraino joana da eta geroztik soinua beroago omen dago...

Goizeko 10etatik 11ak arte- *Clemenceau plazan*

Big Boha Band : 7 boha joile eta 3 atabalari karrikako musika zabaltzeko hala nola rondoak, polkas, scottisches eta kongoak edo mazurkak eta bertze.

11etan - Kanta Lasai Arroka elkartearekin *Merkatuan*

Euskaraz xaramalatzeko elkarrekin, txistu, gaita edo eskusoinu eta gitarekin lagun

Arratsaleko 3ak t'erdietatik 4ak t'erdia arte Gaiteroen alardea *Clemenceau plazan*

Hego eta Iparreko gaiteroek jendeari soinu zenbait eskainiko diote

Hegoaldetik jina: Bilbo, Elantxobe, Arrasate, Oreretra, Tuter, Iruñea, Gazteiz, Eltziego

Iparaldetik jina: Baigorri, Uztaritze, Txingudi, Sutar, Sara, Baiona, Garazi

Kevrenn Brest Sant Mark, Britainiako talde hoberenetariko da, Britainiarrek diotenez. Hogoia ta hamar bat soinulari Kelta herriraino joateko musikaren bidez...

Biribilketa Clemenceau plazatik Santa Eugenie plazarat
Soinulari guziak musikan eta ibilki

Arratsaldeko 5etan-Entzugaria - *Santa Eugenie* kiozkan

Kevrenn Brest Sant Mark : Aurten Bresteko taldea-k 60 urte betetzen ditu. Zorionak !

Arratsaldeko 6etatik 8ak arte – Gaitazko entzugaria
Santa Eugenio elizan (sartzea dohainik)

Landetako **Big Boha Band** idekidura

Iparaldeko eta Hegoaldeko gaiteroak: Bilbo, Tuter, Iruñea, Gasteiz, Eltziego, Baigorri, Uztaritze, Txingudi eta ikasle gaitero taldeak banazka ariko dira ezohizko gaita musikaren entzunarazteko.

Gauetzko 9etan-Gaita afaria (*jendeari idekia 25eurotan*)
Françon eremuan-Ravel egoitzan

Afariaren denboran, parada ukanen dugu Arabatik heldu **Eltziegoko Gaiteroak & Friends** behatzea. Gaitaren soinu berezia, metal-brass ohizko taldea eta perkusioak uztarturik, bertzeak bertze H. Evers, Pablo Sarasate Miarritzen bizi zena, eta Carlos Gardel-etaz oroitzeko

Aintzinetik begiratzea

Eki liburutegia : 05 59 24 79, 21 Verdun etorbidea - Biarritze

Robert Fagoaga : 0.608.823.719

[Azaroaren 11an igandearekin](#)

San Martin auzoan

Dianak : Uztaritzeko Gaiteroek emanik

Goizeko 10ak t'erdietan-Meza nagusian gaita eta organoa

Goizeko 11ak t'erdietan-Kevrenn Brest Sant Mark Clemenceau plazatik Bellevue plazarat

Eguerditik oren bata arte *Bellevue plazan*

Miarriztarrei musikaz ongi etorria pestako bazkaria aintzin **Kevrenn Brest Sant Mark** eta Aragoiko dantzarien partetik

Arratsaldeko 6etan ikuskizuna *Gare du Midi aretoan*

1.zatia

Otsagiko dantzak Itzartxo taldekide ohiekin eta Baigorriko Gaiteroak lagun

Aragoiko dantzak Gallureko taldearekin

2. zatia

Ufaka Zanpaka

Autengo **Burrunka** taldearen ikuskizuna : **25 soinulari 20 dantzari**

Beñat Amorena-k musikak asmatu ditu eta lan gaitza izanik ere, soinu emaitza aski xumea da, baina barna, ginartsua eta kementsua. Eta huntan, dudarik gabe, Uztaritzeko ihauterien eragina nabaritzen da. Ezen Uztaritzeko ihauteriak Hartzaro festibalaren bihotzean dira. 2004. urtean Burrunka taldea asmatua izan da festibalean parte hartzeko. Ekimen hori, Uztaritzeko Gaiteroen aintzindaria eta festibalaren zuzendaria den Pierre Haira-k du izan.

Ufaka Zanpaka izan dadin **Claude Labat** Lauburu elkarte buruzagiak, **Thierry Truffaut** euskal etnologoak, **Dominique Lacouste** modalariak, **Roger Hirigoien** argilariak, **Didier Teillagorri** sonolariak, **Sophie Desclaux** mozorrolariak, **Jose Cazaubon** eta **Ainoa Labeyrie** dantzari gazte suharrek dantzak asmalariak rratsak mundu zabalean bildurik eta **Beñat Amorena** musikaegileak, ahantzi gabe Burrunkalariak eta dantzariak, buru belarri parte harte dute.

KD Burrunka eta Ufaka Zanpaka DVD (Agorila)

SALNEURRIAK 7 - 15 € (12 urte aintzin dohainik)

TXARTELGUNEA

Biarritzen : **Eki** liburutegia : 05 59 24 79 64. Verdun etorbidea
edo **Turismo** bulegoa : 05 59 22 44 66 edo www.biarritz.fr

Baionan : **Elkar** liburutegia : 05 59 59 35 14 – Arsenal plaza
Synergie 2000 : 05 59 52 59 10

Euskal dantza taldeak:

Iparraldeko Dantzarien Biltzarra (EDB ohia) : 05 59 59

35 14

Soinularieri buruz

GAITEROAK ETA ATABALARIAK

Euskal Herriko gaiteroak

Hegoaldetik jinak: Bilbo, Elantxobe, Arrasate, Tuter, Iruñea, Gazteiz, Eltziego

Iparraldetik jinak: Baigorri, Uztaritze, Txingudi, Sutar, Sara, Baiona, Garazi

BIZKAIKO GAITEROAK

Bizkaiko Gaiteroak Taldea gaitarekin zenbait ideia musikal garatzeko, tradiziozko mihi-bikoitzaren garapena eta asaba zaharrek eginiko ekarpenari eusteko asmoarekin zortu zen. Bere ekintzetatik garrantzitsuenetako bat irakaskuntzarena izan bada, beste hainbat musika taldeekin lanegin du: musika bandak, txarangak, saxofoi laukoteak, bibolin laukoteak, eta abar... Horrela, erraldoi konpartsekin, dantza taldeekin edota Euskal Herriko herri askotako festetan ere parte hartu du. Gure mugetatik kanpo hainbat herrialdetan izan dira: Katalunia, Alemania, Txekiar errepublika, Frantzia, Uruguay, Hungaria, Danimarka, Kroazia, Belgika, Ingalaterra, eta A.E.B...

Lan horren islada "Oraingo doinu zaharrak" izeneko diska 2001ean grabatu zuten, Ondalan Erraldioen Konpartsaren laguntzarekin. Halaber, beste diska batzutan ere elkarlanank egin dituzte: "Julian Romano: 100urte" diskan esate baterako.

TUTERAKO GAITEROAK

Ohizko musikatik oraiko soinuetaruntz

Tuterako Gaiteroak taldea 1979ko larrazkenean sorua izan da, Iruñeko Gaiteroekin lagun. Urte ainitzetan, taldea herriko musika hedatu da, Nafarroako dantza taldeekin bereziki eta erraldoiekin, hots herriko kulturalari lotzearekin. Orain arte Tuterako Gaiteroek hiru disko plazaratu dituzte eta ainitz bertzetan parte hartu dute hala nola Numidia, Skalariak, Kilkir txaranga eta ahantzi gabe Tuterako armoni famatuarekin

Usaian Euskal Herrian barna ibiltzen ohi dira bereziki Nafarroako eskualdean haatik maiz etxetik at badoazi lehenik auzoko Aragoinarat eta Erioxarat, Kataluniarat ere. Festibal askotan parte hartzen dute Galizian, Kanari uhartetan, Andalouzian, Frantzian, Erresuma Batuan, Italian, Polonian, Letonian, Rumanian, Slovakian, Turkian edo Kuban.

IRUÑEKO GAITEROAK

Gaitazko goi mailako soinua

Iruñeko Gaiteroak 1963an osatua da Xabier eta Fernando Lakunza anaiekin, eta hiru urte berantago Iruñeko pestetan ofizialki parte hartzen dute.

Berantagoxe taldean Jose Luis Fraile sartuko da. Aspaldi huntatik izigarriko lana bururatu dute arlo ugarritan: jotzeko moldea adiaraziz, gaita erakatsiz, gaita soinu-tresna eta mihiak ere sakonki ikertuz bermoldatzeko.

Liburuak eta artikuluak idatzi dituzte bereziki bi paregabeko ikasbide. Diskoak ere grabatu dituzte Iruñeko Gaiteroak gisa edo Oskorri taldearekin eta bertze. Euskal Herriko dantza talde ainitzekin landu dute.

Dudarik batere gabe, Iruñeko Gaiteroeri eta lehen ikasleak izan ziren Uztaritze, Baigorri, Eltziego, Tuter, Bizkaiko gaiteroak direneri esker gaur egun gaitaren soinua ozenki entzuten dugu Euskal Herrian edo bertze eskualdetan, duela 60 urte hiltzear zelarik.

Gaita eta bertze soinu-tresnekilan

La Nèhe Akizeko armonia eta Uztaritzeko Gaiteroak (Landeak) (Lapurdi)



<http://lanehe.free.fr>

LA NÈHE, ehun urte iragantto dituen Akizeko armonia da, eta zalanarik batere gabe Akitaniako hoberenatariko

Eltziegoko Gaiteroak & Friends (Araba)



Eltziegoko gaiteroak 1977. urtean ekin zioten bere ibilbideari, harrezgero Euskal Herriko zein kanpoko hainbat herritako festetan parte hartuz. 2000. urtearen amaieran **GAITEROS DE ELCIEGO & FRIENDS** taldea sortu zuten, honako helburuarekin:

Orain arte ohizkoak izan ez diren erritmoetan Gaitaren soinua metalekin eta perkusioarekin uztartzea, ahal den neurrian gure instrumentuari kalitatezko jauzia emateko aukera eskainiz.

bat. 80 musikalariz osaturik, Jean Garin Baionako konserbatorioan erakaslea-k bideratuik.

Musika desberdinak entzunarazten dituzte : Españakoa, filmakoak, jazza, Hego eta Iparreko amerikanoak etabar... Jadanik KDak plazaratu dituzte eta *Paso Passion* deitu festibala ospea antolatzen ere ...

La Nèhe eta Uztaritzeko Gaiteroen arteko harremanak ez dira atzokoak.

Aspaldidanik, Uztaritzeko Jean Garin eta Iparraldean lehenetariko bat gaita ikasi eta gero erakatsi duen Pierre Haira, lagun minak ditugu. Biak gaitazaleak dira eta Betiko Gaita entzungarrian adit dezakegu.

PARTAIDEAK : **Gaita lehena**, Juan Carlos Gómez // **Gaita bigarrena** Juantxu Gómez // **Tronboia**, Juanma Sáez // **Bonbardinoa**, Joseba K. Pérez de Heredia // **Tuba**, Jonko Sánchez // **Perkusioak**, Jon Elozegi

<http://www.gaiteroselciego.com/html/gaiteros-elciego-friends.htm>

Harrezkero, Euskal Herriko hainbat herritan izateaz gain, Villafranca del Penedes, Sigüenza, Segovia, Ejea de los Caballeros edo Logroño bezalako lekutan aritu dira bere musika aurkeztuz.

2005ean bere lehen diska plazaratu zuten, **¿Y POR QUÉ NO? (ETA ZERGATIK EZ?)**.

Diska horretako abestiak irizpide hauei jarraituz hautatu zituzten:

- Batetik, guztion ezagunak diren abestiak, baina gaitaren erreperetorian berriz arrotzak.
- Bestetik, "arriskuari" aurre egiteko erronka onartuz, jotzerakoan berez zailak ziren zenbait abesti.

- Eta, azkenik, erabat gaitarenak bihurtu diren abestiak, tradizionalak zein gure mundutik hurrun zeuden erritmoetatik hartutakoak.

Untsalaz Txaranga (Nafarroa)



<http://untsalaz.blogspot.com/>

Iruñeko Untsalaz Txarangak ohizko txarangen musika tresna berak dauzka, nortasuna ematen dion salbuespen nabargarri batekin: bi gaitek ordeztzen dituzte betiko tronpetak. Bere erreperetorioak Euskal Herriko eta kanpoko musikak nahasten ditu bere aditzailegoari giro ezberdinak goza araziz: bere musikariek plazer bera dute Baxe Nafarrako martxak, erraldoien kalejirak, mamboak, merengue ala Tolosako Elkarteen doinuak jotzen.

Untsalaz Txarangak, duela lau urte sortu zenetik, hiri eta herri askotako bestak alaitzen ditu, plazer haundiz, eta entzuten da.

Big Boha Band (Okzitania)



Bretainiatik kanpo badea « cornemuse » delakoa ? Bai eta gainerat Ipar Euskal Herriaren ondo-ondoan, Landetan hain xuxen. *Boha* du izena bainan arras gutti ezagutua. Okzitanian barna 200 bat musikari bada.

Big Boha Band deitu taldea 7-9 bohalari eta 3 atabalari, lehen aldikotoz Euskal Herriarat jinen dire boha soinu-tresnaren ezagutarazterat.

<http://www.bigbohaband.free.fr>

Kevrenn Brest Sant Mark (Bretainia)



BREIZH TOUCH www.brestsantmark.net

Kevrenn Brest Sant Mark taldea geroari so eginik badoa 50 urtedanik. Finistereko Brest hirian sortua da eta handitzearekin musikaz-musika dabil, Bretainian naski, Frantzian eta Europan zehar ere. Bainan hortaz gain musika ikertzen du herriko soinutik abiatuz eta oraiko soinuak ederki apaindu nahian, bertze musikalariekin jotzeko eta soinu-tresna berrien ekartzeko. Apainketa hau herri-hiriko musika bilakatua da eta egia erran ez da batere arrunta.



VIII.
GAITA EGUNAK
Miarritzen
2007ko azaroaren 09,10,11an

Eskoletan

Miarritzeko eskoletan azaroaren 5etik 9 arte

Edozein gauza bezala gaita aintzinarat buruz joan dadin gazteenganat joan behar da, eta gogotik Iparraldeko Gaiteroak joanen dira. Gaita aipagaia izanen da baina herriko bertze soinu-tresnak ere. Hortakotz Xan Errotabehere kondalaria, hitzen egilea, Miarritzeko ikastola eta Reptou eskolarat helduko dira gaitero eta atabalariak jotzeko eta Ufaka Zanpaka ikusgarriaren historioaren kondatzeko.

VIII. GAITA EGUNAK

**Miarritzen
2007ko azaroaren 09,10,11an**

Languntzaileak

Languntzaile guziera, Gaita Egunak baldintza hobereenetan bururat izan dituen sail oroetan, bihotz-bihotzetik eskerrik ainitz:

BIARRITZEko Herriko Etxea

BIARRITZ ÉVÉNEMENTS elkarteak

Kontseilu Jenerala

Akitaniako Kontseilu orokorra

**Direction Régionale des Affaires Culturelles
d'Aquitaine**

Euskal Kultur Erakunda

Euskal Irratiak

France bleu Pays Basque

Herri Soinulariak

Le Musée du Chocolat

Synergie

TVPI

VTF Domaine de Françon

Radiokultura

UDALBIDE

VIII.
GAITA EGUNAK
Miarritzen
2007ko azaroaren 09,10,11an

Xehetasunak

Karriketan : Ibiakoitzatik igande arte

Orenak	Musika	Karrikak eta auzoak
Larunbata	azaroa 10ean	
9h30-10h	Dianak Gaiteroek emanik	San Charles Santa Eugenie Beurivage Merkatua
10h-11h	Big Boha Band Untsalaz txaranga	Clemenceau plaza Merkatuko plaza
11h	Kanta Lasai	Merkatuko plaza
15h30	Gaiteroen alardea	Clemenceau plaza
16h30	Biribilketa Gaiteroak eta Bresteko bagad	Clemenceau plazatik Santa Eugenie plazarat
IGANDEA	azaroaren 11an	
10h	Dianak Gallureko dantzariekin	San Martineko auzoa
10h30	Mezan musikan	San Martineko eliza
11h30 Mezatic landa	Aragoiko dantzak Kevrenn Brest Sant Mark britainiako talde musika	Eliza aintzinean Clemenceau plaza eta Bellevue plaza
..... 11h30		

Azaroaren 10ean ibiakoitzarekin 21h00, Françon eremuko Ravel egoitzan
(81 Salon karrika)

Gaita-Afaria : 25euros **Eltziegoko Gaiteroak & Friends**

Azaroaren 11an igandearekin 18hoo, Miarritzeko Gare du midi aretoan

UFAKA ZANPAKA ikuskizuna

Lehen zatia

Otsagiko dantzak Uztaritzeko Izartxo dantzari ohiekin
Aragoiko Gallureko dantzariekin.

Bigarren zatia

UFAKA ZANPAKA

SALNEURRIAK	Aditzailegoa	Tokian bertan jendeka	Aintzinetik begiratu	
Osorik		15€	12€	
Murritzua	<i>Ikasleak, langabeziak, RMI, AAH... Synergie-ko kartadunak</i>	12€	10€	
Taldeka	<i>Hamar jende edo gehiago</i>		10€	
Dantza taldeak	<i>Dantza taldeak Élèves écoles musique ou danse ? (sur présentation carte ?)</i>		7€	
Haurrak	12 urte aintzin	Urririk	Urririk	

TXARTELGUNEA : UFAKA ZANPAKA ikusgarriarendako

- Miarritzen : **Eki** liburutegirat deituz : 05 59 24 79 64
- Miarritzeko Turismo bulegorat deituz : 05 59 22 44 66
- Baionan : **Elkar Megadenda** 05 59 59 35 14
- **Synergie 2000** : 05 59 52 59 10
- Euskal dantza taldeak : Iparraldeko Dantzarien Biltzarra : 05 59 59 35 14